

# ZAINITZA SISTEMA

PUBLIKO-KOMUNITARIOAK INDARTZEN

*Talde teknikoa*

HIRITIK  AT

**PAREAN**  
Elkartea

 **Deusto**  
Deustuko Unibertsitatea

*Finantziarioa*

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



 **ETORKIZUNA  
ORAIN**  
Es futuro

# 1

## Zer da zaintza?

**Kalitatezko bizitza sustengatzeko** egiten diren lan multzo eta kate konplexua da zaintza.

Oso agerikoa da menpekotasun egoeran dauden pertsonen bueltan egiten den zaintza (hirugarren adina, haur edota aniztasun funtzionala dutenen kasuan), baina ez da horretara mugatzen zaintza. Izan ere, **denok behar dugu, tamaina batean edo bestean zainduak izan eta zaindu**, jaiotzen garetik hiltzen gareneraino inter-dependienteak garen heinean.

# 2

## Nork zaintzen du gaur egun?

**Kalitatezko bizitza sustengatzeko egiten diren lan multzo hauek hiru esparrutan daude banatuak.**

Zaintza eta ongizatea hornitzen duten agente eta esferen arteko elkarlana, osagarritasunaren logika batetik planteatu behar da. Hau da, zaintzan parte hartzen duten esfera eta agente ezberdinek, -erakunde publikoak, merkatua, eta komunitateak- funtzio gehigarriak dauzkate.

## Erakunde publikoak

Zaintza zerbitzu  
eta azpiegiturak

Zaintza beharrak  
finantzatzeko  
laguntzak

Zaintza zerbitzuak  
eskaintzen dituzten  
enpresak

**ZAINTZA**

Familiak

Zaintzaileak

Elkarteak eta  
herritarrak

**Merkatua**

**Komunitate**

# 3

## Zaintza sistema publikoa

Zaintza ulertzeko abiapuntua. Hasteko, zaintza bizitzak sostengatzeko elementu nagusia izanik, **zaintza sistema publiko baten aldeko aldarri argia egin behar da.**

Zaintzek bizitzak eta jendartea sustengatzeko duten garrantzia ikusita, ezinbestekoa da, hauek ziurtatuko dituen sistema integrala garatzea, erakunde publikoen gidaritzara eta ardurapean. Naturaltasunez ulertzen badugu hezkuntza edo osasungintza sistema publikoak egon behar dutela, berdin izan behar da zaintzaren alorrean ere.

# 4

## Zeharlerrotasuna

Zaintza bizitzak sostengatzeko elementu nagusia bada, **politika publikoen erdigunean egon behar da etengabean.** Hau da, bai ikuspuntu indibidual zein sistemiko batetik, gure bizitzaren edozein esparrutan zaintzak presentzia daukan heinean, politika publiko guztiek daukate zeregin eta zeresana.

Hortaz, **zaintzaren zeharkakotasuna aitortu behar dugu,** politika publiko guztien diseinuen helburua izanik. **Zaintza** ez da departamentu konkretu bati (Gizarte Zerbitzuei) dagokion enkargua, baizik eta **departamentu ezberdinak zeharkatzen dituen elementua.**

## Elkarlan publiko-komunitarioa modu desberdinetan antolatuta

**Herri bakoitzeko ezaugarrien arabera antolatu ziren konfinamendu garaian zaintza sareak eta erakunde publikoarekiko elkarlana eta koordinazioa.**

Aldez aurretik existitzen zen ehun komunitarioa baliatu zen sareak martxan jartzeko eta herri mugimenduaren beraren aurretiko bizitasunak eta beraren eta Udalaren arteko aurretiko harremanak asko baldintzatu du sarearen potentzialitatea.

Zaintza sare eta dinamika komunitarioen jasangarritasuna bermatzeko, zaintzaren gaia tokian tokiko eragile komunitario eta elkarteetan txertatzea interesgarria izango litzateke, auzo elkarteak edo jai batzordeetan adibidez.

## Zaintzaren beharraren bisibilizazioa. Gizakion zaurgarritasuna eta interdependentzia erdigune

Norberaren zaintzarako laguntza beharrezkoa dela onartzea eta eskatzea ez da ariketa samurra egungo gizartean. Zaintza familiaren erantzukizuna denaren ustea errotua dago eta laguntza eskatzea, inguru hori ez dugula publikoki onartzea dakar. Laguntza eskatzeko konfiantza egon behar da derrigor, eta zaintza erlazioak sortzeko, harreman orekatua egon behar da, zaintza emaile/jasotzaile logikatik-at. Konfinamendu garaiko zaintza sare guztietan bolondres gehiago egon dira, zaintza eskaerak baino. **Benetako zaintza sareak sustatzeko, joan eta etorriko zaintza bultzatu behar da, zaindu eta zaintzaile dikotomia apurtuko duena.**

## 7 Eskala/auzoaren garrantzia

Komunitatea inguru fisiko batean garatzen da, aurrez aurreko eta **konfiantzako erlazioak sortzeko lurraldetasuna ezinbestekoa du**, eta eremu horren tamainak garrantzia dauka. Zaintzari erantzuteko **mikro espazioak** sustatu behar dira; zentralizatutako makro-hirien aurrean, eguneroko bizitzaren espazio diren auzoen aldeko apustua egin behar da.

## 8 Parte hartze ereduak

Politikarekiko eta parte hartzearekiko desafekzio nabarmena dagoen une batean, zaintza sareek parte hartzeko eredu berritzailea ekarri dute; egituratze gutxikoa, aurretiazko “karga” edo historiarik gabekoa, erabat praktikoak, inplikazio baxuko parte hartzea ahalbidetzen dutena... Honek guztiak erakarrita asko eta oso anitzak izan dira zaintza sareetan lan egiteko prest agertu diren herritarrak.

**Zaintza sareek beraz, ohiko elkartegintzak edo boluntariorik baino parte-hartze eredu erakargarriagoak eskaini ditu.**

## 9 Zaintzaren gaiak hartutako zentralitatea

Mugimendu feministak aspaldidanik zaintzaren zentralitatea aldarrikatu arren, **orain inoiz baino interes politiko, sozial eta akademiko handiago lortu du zaintzaren gaiak**. Pandemiak sortutako abagune hau baliatu behar da zaintza sistema publiko komunitarioaren bidean urratsak emateko.

	HELBURUAK	EGITASMOAK	UDALETXEA								KOMUNITATEA
			Gizarte Zerbitzuak	Hirigintza	Osasungintza	Parte hartzea Gobernantza	Kultura	Berdintasuna	Hezkuntza/Gazteria	Migrazioak	
ZAIKTZEN DUEN ADMINISTRAZIOA	<b>Zaintza erdigunean jartzeko formakuntza sustatu</b>	Administrazioko langileei formakuntza eskaini arlo guztiak inplikatur eta gaiaren inguruan guztien parte hartzea bilatuz.	■	■	■	■	■	■	■	■	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Zaintzaile profesionalak</li> <li>&gt; Mugimendu feminista</li> </ul>
	<b>Hausnarketa espazioak sustatu</b>	Zaintzen inguruko hausnarketarako espazioak sortu eta dinamizatu. Zaintzan aritzen diren eragileen arteko elkar ezagutza, errekonozimendua eta koordinazioa sustatu.	■	■	■	■	■	■	■	■	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Auzo elkarteak</li> <li>&gt; Zaintza elkarteak</li> <li>&gt; Kultur eragileak</li> <li>&gt; Herritarrak</li> </ul>
	<b>Zaintza erdigunean jarriko duten aurrekontuak diseinatu</b>	Zaintza sistema publikoaren bidean, ezinbestekoa da zaintzak duen garrantzia aitortzea eta horrek aurrekontuetan eragina izan beharko du ezinbestean. Aurrekontuak birpentsatzeko ahalegina burutu behar da.	■	■	■	■	■	■	■	■	
	<b>Zaintzaren feminizazioa gainditu</b>	Departamendu desberdinak inplikatu behar diren moduan, zaintzen gaien gizonetako inplikatu behar dira, baita teknikoaren artean ere. Hau neurtu eta zuzentzeko neurriak hartu beharko dira.	■	■	■	■	■	■	■	■	
EGUNEROKOA ERDIGUNEAN JARTZEN	<b>Behaketa eta beharren detekzioa</b>	Herritarren artean dauden zaintza behar ezberdinak detektatzeko sareak sortu elkarteak, komertzioak, eskolak eta bestelakoak inplikatur ahalegin horretan.	■		■		■		■		<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Komertzioak</li> <li>&gt; Ostalaritza</li> <li>&gt; Osasun zentroak</li> <li>&gt; Ikas komunitateak</li> <li>&gt; Herritarrak</li> </ul>
		Bizilagunen inplikazio bilatu, komunitate zaintzaileak sustatu.	■		■						
	<b>Zaintzaren bisibilizazioa</b>	Existitzen diren baliabideak mapeatu eta ezagutarazi.	■	■	■	■	■		■		
		Zaintzak bisibilizatzeko kanpainak martxan jarri: zaintzaren astea, zaintzaileak identifikatzeko ikurrak...	■			■	■	■	■	■	
	<b>Talde zaintzak sustatu</b>	Haurrak elkarrekin zaintzeko espazio eta dinamika bultzatu.				■			■		<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Auzo elkarteak</li> <li>&gt; Ikas komunitateak</li> </ul>
		Gaixotasun konkretuak dituztenen zaintza taldeak sustatu eta dinamizatu.	■		■						<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Osasungintza</li> </ul>
	<b>Akonpainamendu dinamikak martxan jarri</b>	Bakardadea pairatzen duten pertsonak lagundu. Herrira/auzora etortzen diren pertsonen arreta egin. Hauskortasun egoeran dauden pertsonen akonpainamendua.	■			■		■	■	■	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Adinekoen elkarteak</li> <li>&gt; Auzo elkarteak</li> <li>&gt; Migranteen elkarteak</li> </ul>
ZAIKTZEN DUEN HIRIA	<b>Zaintzarako azpiegiturak hedatu</b>	Jada existitzen diren azpiegiturak zaintzaren ikuspegitik erabili.		■			■			<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Kultur etxeak</li> <li>&gt; Auzo elkarteak</li> <li>&gt; Ikas komunitateak</li> </ul>	
		Azpiegitura berriak sortu: adinekoentzako auzo guneak adibidez.		■						<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Adinekoen elkarteak</li> <li>&gt; Auzo elkarteak</li> </ul>	
	<b>Espazio publiko egokia diseinatu eta gauzatu</b>	Espazio publiko zaintza beharrak kontutan hartuz diseinatu: bankuak, itzala guneak, komun publikoak, espazio ateriak...		■		■	■				
Zaintza ahalbidetzen duten espazioak sortu: eskoletako jolas toki egokiak, plaza ateriak, ...			■		■			■			
ZAIKTZAILEAK ZAINDU	<b>Zaintzaile profesionalen egoera duindu</b>	Etkez etxeko zerbitzuetako langileen baldintzak berrikusi eta hobetu.	■			■		■		■	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Sindikatuak</li> </ul>
		Zaintzaileen kooperatibak sustatu.	■			■		■		■	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Emakume migranteen elkarteak</li> <li>&gt; Mugimendu feminista</li> <li>&gt; Ekonomia sozialeko eragileak</li> </ul>
	<b>Zaintza lanetan gizonetako ardura zabaldu</b>	Kanpaina eta dinamikak martxan jarri gizonetako dagokien ardura hartu dezaten zaintza lanetan.				■		■		<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Mugimendu feminista</li> </ul>	
	<b>Zaintzaile ez profesionalen laguntza eskaini</b>	Zaintzaileei aholkularitza, laguntza emozionala edota tramiteak burutzeko laguntza eskaini.	■		■	■		■		■	
		Zaintzaileen arteko elkar ezagutza sustatu.	■		■	■				■	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Zaintza diharduten elkarte eta fundazioak</li> </ul>
		Zaintzaileentzako formakuntza eskaini.	■		■	■		■		■	

**Oharrak:** Infografia honetan erakunde publiko eta konkretuki Udaletxeetatik sustatu daitezkeen zenbait lan ildo eta proiektu planteatzen dugu. Betiere, lidergo publikoa haintzat hartuta baina komunitate zein ehun ekonomikoa inplikatur ere. Aldi berean, zaintza transbersala izan behar duen heinean, Udaletxeetako departamendu desberdinek nola inplikatu daitezkeen irudikatzea bilatu dugu, jakinda ere Udaletxe bakoitzean departamendu desberdinak izango direla eta ohikoan izan daitezkeen kontutan hartuz.

■ Lidergotza

■ Udaletxeetako Departamentu inplikatur

# ZAINZA SISTEMA

PUBLIKO-KOMUNITARIOAK INDARTZEN

<https://hiritik-at.eus/project/zaintza-ekosistemak>

*Talde teknikoa*

HIRITIK AT

PAREAN  
Elkartea

 **Deusto**  
Deustuko Unibertsitatea

*Donostiako, Errenteriako, Oiartzungo eta Tolosako  
Udalen parte hartzeari esker garatu da proiektua.*